



BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1997ko martxoaren 14a. 54. zenbakia. Doan banatzen da.



martxoak 8  
emakumearen  
nazioarteko  
eguna  
andoain 1997

EUSKALDUNON

1997

# Gida

Elektrikariak  
Suhiltzaileak  
Iturginak  
Aseguruak  
Sarrailagileak  
Bidaiak  
Jatetxeak

Informazioa:  
☎ 943-300222

K  
O  
M  
E  
R  
T  
Z  
I  
A  
L  
A

euskaldunon  
**Egunkaria**

Ileapaindegiak  
Ikuskizunak  
Argazkilariak  
Hurtzaindegiak  
Mekanikariak  
Dentistak...

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Jone Larrañaga,  
"Ezezagunaren beldur".
2. **GALDEZKA.**  
Eta zu, irtengo al zara Korrikan?
3. **ADUNA.**  
Zuhaitz eguna.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
IX. Rikardo Arregi kazetaritza saria.  
Natur astea.  
10. Korrika Andoainen.
7. **ASTEASU.**  
Muskil elkartearen gora beherak.
- 8-9. **BILLABONA.**  
Birziklatu, ez zaituz atzera gelditu.  
Badator Korrika!
10. **ZIZURKIL.**  
Beterriko liburua 1996.
11. **ENPRESA.**  
Lizarra, laneko arropak garbitzen.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Martxoaren 8a.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Kristina Wozniak: "Familia handi bateko  
kide sentitzen naiz hemen".
- 16-17. **KULTURA.**  
Aiurriren etapa berria.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32  
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.  
**Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** IPAR, S.L. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiatza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia.  
**Lege-gordailua:** SS-202/94  
**ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## EZEZAGUNAREN BELDUR



JONE LARRAÑAGA


Inozente itxura osoa du argazkian. Kamarari begira-begira ari zaio, trasto hori zer demontre den ez dakiela. Begi beltzak ditu eta ile kizkur zuri-zuria. Itxuraz ez du beste ezer berezia, ezagun ditugun horietako beste ardi bat baino ez lehen bistazoan ikusita. Ez da artaldeko ardi beltza; artalderik ere ez du sikiera. Gizagaixoa, erruki dut. Tira, gertatu zaionaren kontzientziarik batere ez duela pentsatzeak kontsolatzen nau.

Dollyz ari naiz, azken aste hauetan hainbeste hauts harrotu dituen ardi klonikoaz. Ardi heldu baten errapeetik ateratako zelula batetik abiatuta lortu dute Eskozian haren igoal-igoala den beste bat sortzea. Fotokopia genetikoak deitzen diote: berdin-berdinak dira itxuraz, berdina dute garuna, berdina guzti-guztia.

Badakit horrelakoen bitartez aurrerakuntza handiak lor litezkeela, lehendik medikuntzan eta farmakologian lortu direnak antzeko saioei eskerrak lortu direla. Baina mundua izate berdin-berdinez bete litekeela pentsatze hutsak sekulako beldurra sortzen dit.

Joan den abuztuan genetikari aditua den emakume bati elkarrizketa egiteko aukera izan nuen. Mallabiakoa du ama, eta haren herrian urte asko atzera gertatutakoa jartzen zuen adibidetzat zientziari beldurrik ez zaiola izan behar adierazteko, ezezaguna duguna mamu ez dugula bihurtu behar azaltzeko. Inguruetan burdinbideak erakitzen hasi zirenean Mallabiako alkateak ez zuen trenea herriatik pasatzeko baimenik eman; tramankulu berri hark zelaietan patxada ederrean ziren behiak hilko zituela pentsatzen zuen. Mallabia isolatuta eta inguruko herriak baino atzeratuagoa geratu zen gero.

Azalpen balekoa iruditu zitzaidan, arrazoia izango zuela pentsatu nuen orduko hartan. Baina azken aldiaren behin eta berriz entzundakoez barru zirrara sortarazi didate, beldurra. Orain bi aste Dolly izan zen, aste honetan klonatu berri dituzten bi tximuen berri jaso dugu Estatu Batuetatik. Zientzilari talde hori bera ez dakit zenbat mila litro esne emango dituen superbegi klonikoa lor-zekotan buru-belarri ari omen da gainera. Zer edo zein izango da hurrena?



Aldizkari honak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.



Aldizkari honak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera Departamentuaren laguntza jaso du.

## ETA ZU, IRTENGO AL ZARA KORRIKAN?

*Aurten inoiz baino kilometro gehiago egingo ditu Korrikak gure bailaran. Bi aldiz igaroko da, eta nahikoa goiz, gainera. Bestalde, Euskal Herrian zehar hamar egunez ibiliko da Korrikaren lekukoa herriz herri gelditu ere egin gabe, eta bidean,*

*gazte, zahar eta haur ugari egingo dute arinetan euskara eta AEKaren alde. Guk hemengo bizilagunek lasterketa herrikoi, euskaltzale eta alai horretan parte hartuko ote duten jakin nahi izan dugu. Hona hemen erantzunak:*



### **Daniel Hermoso, ikaslea. Andoain.**

Ez, ezin dut. Larunbatean txirringularitza lasterketa bat dut, eta astelehenean herriz, klasera joan behar dut. Hala ere, dirulaguntzaren bidez Korrikari laguntzeko asmoa dut.



### **Ana Isabel Pérez, langilea. Zizurkil.**

Ez, nik ez dut korrikarik egingo. Lehen irteten nintzen lagunartean, ezkongabe nengoen. Hala ere, orain ere gustokoak ditut horrelako gauzak.



### **Carlos Cuesta, langilea. Asteasu.**

Ez, ez dut korri egingo; oso goiz pasatzen da. Ez naiz inoiz atera Korrikan, baina beranduago pasatuko balitz, iluntzean edo, beharbada irtengo nintzateke.



### **Eric Femia, ikaslea. Billabona.**

Bai, eskolarekin irtengo naiz, ostiralean egingo dugun Korrika txikian. Gustukoa dut Korrika, gainera, gero merienda egingo dugula uste dut.



### **Arantzazu Artola, ikaslea. Aduna.**

Eskolarekin irtengo gara Korrikan, hori pentsatzen dut behintzat. Duela bi urte Zizurkilen irten ginen, aurten ez dakit non egingo dugun korrika.



### **Miren Uranga, langilea. Andoain.**

Korrikaren hasieratan irteten nintzen korri egitera eta ekintza horretan parte hartzera. Orain, ordea, haurrak direla eta ezin izango dut irten Korrikan.



**XIXORI**  
**BELARDENDA**  
DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**VIDEO CLUB AMETS**



Bideo zintak alokatzen dira  
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

# BRASILGO IHAUTERIAK ETA SANTA AGEDA

## Ekintza ugari antolatu dute otsailean ikastetxeak eta guraso elkarteak

*Brasilgo Ihauterietako jantziez mozorrotu ziren ostiral mehean Adunako haurrak eta euren irakasleak. Mozorrotzeaz gain, Brasilgo doinuak dantzatu eta merienda bat egin zuten gurasoekin batera.*



**O**rdurdi ikuskizuna eskaini zuten Adunako haurrek Ihauterietako ostiral mehean. Eskolako haurren eta irakasleen artean erabaki zuten zer mozorrotu jantzi, eta mozorrotzeko behar zituzten paperezko jantziak nahiz gimnasioa apaintzeko lanak eskolako orduetan egin zituzten. Maila bakoitzeko haurrek beren dantza egin ondoren, eta gurasoekin laguntzarekin, ikuskizuna amaitzeko guztiek batera dantza egin zuten.

## HILERO BAT GUTXIAGO EDANEZ GERO ...



### *Guraso elkarteak eskerrak*

Santa Ageda bezperan kantari parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Adunako guraso elkarteak. Era berean, laguntza eskaini zutenek eta herritarrek egin zieten harrera ona eskertu nahi dituzte.

## ZUHAITZ EGUNA

### Ehun zuhaitz inguru landatu dituzte Basopetan

**B**elkoain bidean dagoen Basopeta izeneko lekuan landatu dituzte ehun zuhaitz inguru herriko haur eta langileek. Haur txikiak kotxez joan ziren bertaraino, eta behin guztiak bertan bildu ondoren, bost taldetan banatu eta zuhaitzak landatzeari ekin zioten. Zuloak udal langileek egin zituzten aurrez, eta haurrek zuhaitza bertan sartzen lagundu eta zuloa lurrez estaltzeko lanak egin zituzten. Gipuzkoako Diputazioak udalari eman zizkion pago eta haritz landareak berehala landatu zituzten, eta ondoren, hamaiketako egin zuten lanean ahitutako indarrak gorputzeratzeko.

### *Ingurugiroa zaindu*

Adunan zuhaitz eguna egin duten lehenengoa urtea izan da. Hala ere, eta eskolako irakasleen esanetan, ingu-



### *Haurrak zuhaitzak landatu eta gero*

rugiroa urtean zehar landuko duten gaia izango da; ingurugiroa zaindu eta errespetatu beharra, alegia. Oraingoz *Birziklatu, ez zaitetz atzera gelditu* ekimenak emandako material ugari dute, haurrak zaborra gutxiago sortzeko eta birziklatzeko beharraz jabeazteko.

## IX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

### Berrikuntzak egingo dituzte aurten

*Bederatzigarren urtez Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako deialdia egin du aurten Andoaingo Udalak. Sari honetan parte hartzeko 1996ko maiatzaren 16tik 1997ko maiatzaren 15era bitartean euskaraz egin diren kazetari lanak aurkeztu behar dira, bai prentsa idatzian bai ikusentzunezko hedabideetan eginikoak. Sei sari banatuko dira, eta horietako bi berriak dira.*

“**Komunikabideen berrikuntza**” sariak, komunikabideetako lana euskaraz burutzeko teknologian, erredakzioan, publizitatean, nahiz beste atal batean eginiko berrikuntzak sarituko ditu.

“**Saiakera laburra**” sarian, egileak aztergaiari buruz egindako balorazio propioaren sakontasuna eta zorrozotasuna, nola, idazkeraren egokitasuna, aberastasuna eta kalitatea hartuko ditu kontuan epaimahaiaik.

“**Baloraziozko kazetaritza**” sarian, prentsa idatziko zutabe eta irrati edo telebistako iritzizko emandali laburrak har dezakete parte.

“**Erreportaia idatzia**” sarian berriz, lanen estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko dira kontuan.

### Sari berriak

Ikusentzunezko erreportaia eta kazetari berria atalak dira aurtengo berrikuntzak. “Ikusentzunezko erreportaia”-ren bitartez irrati edo telebistako ikusentzunezko erreportaiarik hoberena sarituko da.

“Kazetari berria” atalean berriz, praktiketako zein lan-kontratu finkorik gabekoen, nola kolaborazio edota beka-dun gisa lan egiten dutenen lanak aurkeztu beharko dira.



*Rikardo Arregi kazetaritza Sariaren aurkezpena*

Beraz, euskal kazetaritzaren munduan hasi berriak edota hasten ari direnak bakarrik jaso ahal izango dute sari hau.

Lanak Andoaingo Udaletxera bidali beharko dira: IX. Rikardo Arregi Saria. Andoaingo Udala, Goikoplaza, z/g. 20140 Andoain. Maiatzaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

### Epaimahaia eta sariak

Epaimahaia iazko bera izango da: Andoaingo Udaleko alkatea den Jose Antonio Perez Gabarain epaimahaiburu, Miren Azkarate, Allande Boutin, Andu Lertxundi, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta eta Patxi Baztarrika izango dira epaimahaikide.

Sariei dagokienez, 1.925.000 pezeta banatuko dira sari-tan. “Komunikabideen berrikuntza” atalean kaxa oroitgarria eta agiri-diploma emango zaizkio sarituari. “Kazetari berria” ataleko saridunak berriz, 225.000 pezetatako saria jasoko du. Gainerako ataletako saridunek 425.000 pezetatako saria jasoko dute. Epaimahaia-aren erabakia eta sari banaketa 1997ko udan egingo da.



*ogt berezi eta  
artesanak  
...  
etxerainoko  
zerbitzua*

**OKINDEGIA, S.L.**  
Lizarrate-errea, 32 / Eliztiendi auzoa.  
20159 ASTEASU ☎ 663292 - 691896

**OGI • GOXO**



• TARTAK • LIJITO BESOIA • PASTELAK  
• TEILAK-ZIGARRILOAK  
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



**AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA**

**IRAOLA**

**ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK**

Nagusia, 37  
Tif. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
**20150 BILLABONA**



**CENTRO OPTICO**

**OPTIKO - OPTOMETRISTAK**

**EGUZKITAKO  
BETAURREKOTAN  
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17

# NATUR ASTEA

**Urtero bezala natur astea antolatu du Andoaingo Eguzki talde ekologistak laugarren aldiz. Bideo emanaldiak, hitzaldiak eta mahainguruak izango dira martxoaren 10etik 20ra bitartean.**


**N**atur asteko lehen ekitaldia martxoaren 10ean egin zen. Egun horretan Itoitzi buruzko bideoa izan zuten ikusgai kultur etxera hurbildu zirenek. Martxoaren 13an berriz, "Euskal Herria ekologiatik eraikiz" izenburupeko bideoa eskaini zuten Eguzkiko kideek, Urigain Kultura Etxean. Azken bideo emanaldia- ren ondoren solasaldirako aukera izan zuten bertan bil- dutakoak.

### Hitzaldiak

Martxoaren 17an, astelehenean, nekazaritza biologi- koa izango dute aztergai eta Gipuzkoako Biolur taldeko kidea izango da hizlaria. Martxoaren 20rako, ostegunera- ko, mahaingurua antolatu dute. Mahaingurura Andoaingo talde politiko guztiak gonbidatu dituzte eta aztertu behar- ko duten gaia, zaborra eta bere kudeaketa izango da. Hi- tzaldiak, bideo emanaldien antzera, Urigain Kultura etxe- an izango dira arratsaldeko 19:30etan.

### Zuhaitz landaketa

Ez dugu ahaztu behar, bestetik, herrian egingo duten zuhaitz landaketa. Buruntza mendi magalean landatuko dituzte zuhaitzak eta martxoaren 16an egingo dute hori. Bertan parte hartu edo lagundu nahi duten guztici luza-



tuko diete hori egiteko gonbitea. Beraz, parte hartu nahi izanez gero azaldu zaitez martxoaren 16an Goikoplazara, goizeko 10:00etan.

## IZAN ZAITEZ SOLIDARIO!

### Gaixo dagoen neska bati laguntzeko kanpaina

**E**gun hauetan solidario izatea eskatzen dizun gutunik jaso dezakezu. Solidaritate eskaera horren helburua oso gaixo dagoen neskato bati laguntzea baino ez da. Jada, herriko pertsona eta erakunde ezberdinak bat egin dute kanpaina horrekin.

Sonia zazpi urteko gaztetxo portugaldar bat da eta gai- xotasun larri bat dela eta hiltzorian dago. Soniaren ilusio- rik handiena Guinness liburuan bisita-txartela gehien bildu

duen pertsona gisa azaltzea da. Hori lortzeko herritar guz- tien laguntza eskatzen du. Lagundu nahi izanez gero, bidali iezaiezu kanpaina horri buruzko orriak beste hamar pertsona edota erakundeci. Bisita-txartela bidali beharre- ko helbidea berriz, hauxe da:

Sonia Cristina Magalhaes-Semena  
Rua de Santa Lucía, 763A  
4200 Porte (Portugal)

**SOTO**  
elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g. BILLABONA  
☎ 69 11 73

**Loitzo**

LANPARAK      ALTZARIAK  
KOLTZOIAK      OPARIAK

Errota kalea, - 3 ☎ 69 21 35 BILLABONA

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA 2  
☎ 590162  
ANDOAIN

## 10. KORRIKA ANDOAINEN

**Bi aldiz pasako da herrian barrena**

**Martxoaren 15ean eta 17an Andoaindik pasako da 10. Korrika, eta denetara hamahiru kilometro izango dira. Horrezaz gain, Korrikaren inguruan ekintza ezberdinak antolatu dituzte egun horien inguruan.**

**A**EK-ko arduradunek herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu digute: *"Duela bi urtetako Korrikan parte hartze handia izan zen, eta aurten ere Korrikak erantzun bera izatea espero dugu. Zenbait herrietan ezin izango dira kilometro guztiak saldu, eta beraz, Andoain, Billabona eta Tolosa bezalako herrietan diru kopurua handiagoa lortu beharko dugu, butsune horiek estali abal izateko".*

Korrika iritsi bitartean, zenbait ekintza ezberdinetan parte hartu ahal izango du jendeak. Horrela, martxoaren 6ean Korrikari buruzko bideoa aurkeztu zen, eta martxoaren 8an berriz, Korrikaren aldeko dirubilketa egin zuten.

Korrika txikiaren txanda martxoaren 14ean izan da. Arratsaldeko 15:30etan hasita, Andoaingo ikastetxeetako haurrek hartu zuten parte lasterketa herriko horretan.

### **Korrika**

Korrika Andoainera martxoaren 15ean iritsiko da lehendabiziko aldiz. Goizeko 8:30etan Sorabillako Izturitzaga etxe parean egingo zaio ongietorria Korrikari. Ondoren, 9:30etan gosari herrikoia egingo da Bekoplazan. Goizeko 11:00etan Bekoplazatik hasita kalejira egingo da bertsolari, trikitilari, dultzainlari eta erraldoi eta buruhandien konpartsarekin. Azkenik, eguerdiko 14:00etan herri bazkaria egingo da Arrate pilotalekuan. Martxoaren 17an iritsiko da Korrika berrir. Goizeko 7:30ak aldera, Urrietako Irurain gasolindegian parean ongietorria egin ondoren, goizeko 9:00etan gosari herrikoia egingo da Bekoplazan.

Azkenik, martxoaren 23an, Korrika 10aren amaiera festa dela eta Bilborako autobusa antolatu du AEK euskaltegiak. Autobuscrako txartela Xaxi, Goierrri eta Lanbroa tabernetan eta AEK euskaltegian egongo dira salgai.

## HASI DIRA KALE NAGUSIKO OBRAK

## HBren MOZIOA EZ ZEN ONARTU



Kale Nagusian zorua egin eta azplegitura guztia aldatu ahal izateko lanak hasi dituzte. Garraio grebaren ondoren hasiriko lan horiek hiru hilabete t'erdiko iraupena izango dute, eta, obra horien ondoren, Santa Krutz elizatik Bastero bitarteko alderdi guztia berrituta geratuko da.

### **Kaleberria**

Egun horietan ere, Kaleberria konpondu eta garbitzeko lanetan ibili dira. Gipuzkoako Diputazioaren dirulaguntzari eskertu, lehen N-1 gisa bezala ezagutzen zen errepidea garbitu eta asfaltoz berritu dute.

**Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko kideen gartzeleratzea eta herriko gazte bati Alternatiba Demokratikoari buruzko kartela jartzeagatik Ertzaintzak atxilotu eta pistola buruan jarri izana salatu zuten HB-ko zinegotziek aparteko Udalbatzarrean.**

Gartzeleratuak aske uztea eskatzeaz gain, mahaian eseri eta negoziatzeko tresna bakarra ezker abertzaleak jarri duela adierazi zuen HB-ko zinegotzi den Petrikorenak: *"Totalitario eta faszistatzat jotzen gaituzue, baina elkarrizketaren bideari ekin eta ateak itxi dizkiguzue. Jaso dugun erantzuna errepresioa izan da. Horren aurrean ez gara ixilduko. Ez dugu gure burua makurtuko".*

EAJ-PNVek Auzitegi Gorenaren erabakia eztabaidagarria eta mahaikideen gartzeleratzea salatzea dela azaldu zuen arren, mozioaren aurka bozkatu zuen. PSE-EEk berriz, Alternatiba Demokratikoa herriak egunero azaltzen duena zela adierazteaz gain, epaileen erabakia eztabaidan jartzeko HB inor ez zela azpimarratu zuen, beraz, ezekoa bozkatu zuen. EA alderdiak bestetik, mahaikideen gartzeleratzeari buruzko mozioaren alde bozkatu zuen. IU-EB abstenitu egin zen, eta azkenean, ez zen onartu HBren mozioa.





# MUSKIL ELKARTEAREN GORA BEHERAK

**Ekainean erabakiko dute aurrera jarraitu ala ez**

*Hiru urte bete dira Muskil elkarte Tolosaldeko herri txikietan antolatzen hasi zenetik, eta Asteasun dauka elkarteak egoitza orokorra. Herri txikien arteko harremanak bul-tzatzeko eta bertako haurren aisia betetze-ko jolasak eta kirol ekintzak antolatu ditu Muskilek urte hauetan zehar. Orain, ordea,*

*diru arazoa dela eta, zenbait aldaketa egin behar dute. Ondorioz, elkarteko kide diren udalek erabaki beharko dute ekainean funtzionamendu berriarekin jarraitu ala ez. Izan ere, eta herri bakoitzak ordaintzen duen dirukopurua igotzen ez badute, ezin izango du elkarteak funtzionatzen jarraitu.*

Iazko urtearen amaieran Muskil elkarteko partaide diren hamalau herrietako udal ordezkariekin bildu ziren elkarteko kideak. Bertan, nahiz eta herri batzuk agertu ez, udal bakoitzak jartzen duen diru kopurua igo egin behar zela eta ondorioz, aurrerantzean herri bakoitzari egokitutako ekintzak antolatuko dituztela proposatu zuten. Azken finean, herri bakoitzak jartzen duen dirua era proportzionalago batean banatzea proposatu zuten. Proposamen horiek egiteko arrazoiak, ikasturte hasieran herriz herri eginiko bilera irekitan jaso zituzten iradokizunak, elkartearen egoera ekonomikoa eta elkarteak orain arte eginikoaren balantzea izan dira. Hainbat bilera egin ondoren, azkenean, otsailean erabaki zuten ekainera arte jarraitu beharreko funtzionamendua hori izango zela. Beraz, udal bakoitzak ordaindu beharreko dirukopurua, hiru urtetan aldatu ez dena, igotzeaz gain, hemendik aurrera herri bakoitzak erabakiko du zein ekintza mota egin nahi duen. Horrek guztiak herritarren parte hartze handiago eskatzen du, baina elkarteko kideen esanetan horixe da Muskilen helburua; udalak eta herriko elkarteek parte hartzea herri txikiak dinamizatzeko ekimenetan.



# JESUS JAUREGI APAIZA HIL DA

**Zazpi urtetan aritu zen Asteasun apaiz lanetan**

*Berrogeita hamazazpi urteko antzuolatarra zen Jesus Jauregi apaiza otsailaren 24an hil zen gaixotasun larri baten ondorioz. Gaur egun Ataungo apaiz zen Jesus duela hamazazpi urte etorri zen Asteasura, aurrez Billabonan egon ondoren, eta herritarrek esan digutenez, oso harreman ona lortu zuen bertakoekin.*

Jesus Jauregi Ataungo apaiza izan da azken urte haue-tan. Ataunen bertan chortzi zuten, eta berak agindu beza-la, nitxo arrunt batean, gainera. Aurrez herrian bertan egin

zuten hiletan herritar, lagun eta nola ez, asteasuar asko bildu zen. Jesus Jauregi berak, gaixotasunaren ondorioz aurki hil behar zuela jakitean, bere hileta eta ehorzketa nolakoak izan behar zuten zehaztuta utzi zuen; nitxoan lore bakar bat uzteko esan zuen, besteak beste.

*Herrian lan ugari egindakoa*

Asteasuko apaiz etxeari bizi eta mugimendu handia eman zion Jesus apaizak. Gazteak elkartzeko lekua jarri, haurrei dotrina erakutsi, eta antzeko lan gehiago egin zuen herriko gaztetxoekin. Herritarrekin ongi moldatzea hasiera batean asko kostatu zitzaion arren, oso harre-man estuak izan zituen gerora asteasuarekin.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa  
fundación

Ageliseritza  
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

## BIRZIKLATU, EZ ZAITEZ ATZERA GELDITU

### Ikastetxeei zuzenduriko ingurugiro heziketa kanpaina

Gipuzkoako Diputazioaren ekimenez haurrak zaborraren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina egin berri dute bailarako eskola guztietan. Zabor gutxiago egitearen garrantziaz gain, zaborra berrerabili eta birziklatu daitekeela ikusi dute seigarren mailako gaztetxoek joku eta antzerki bitartez.



Jolasean bezitu

Osailaren 25ean Fleming ikastetxera heldu zen *Birziklatu, ez zaitez atzera gelditu* izeneko furgoneta. Lehenik eta behin, saioa gidatzen zuten bi hezitzaileen artean, Gipuzkorako eginda dagoen zaborrari buruzko Plan Integrala azaldu zuten diapositiba batzuen bitartez. Ondoren, bi hezitzaileek egin zuten antzerki txikiaren aitzakiaz, diapositibetan ikusi zutena komentatzeko eta eztabaidatzeko aukera izan zuten ikasleek. Ahalik eta zabor gutxien sortu behar dela argi utzita, arrazoizko kontsumoa egiteko, eta beraz, ahalik eta zabor gutxien sortzeko zer erosketa egin behar diren azaldu zuten. Baina hori azaltzeko, ikasle talde bakoitzari salgaien zerrenda bat eman ondoren, eta jolastokian jarri zuten dendatxo batean, talde bakoitzak ahalik eta zabor gutxien sortzen duten produktuak erosi behar izan zituen. Lokotx bilketa jolas herrikoia egin zuten ondoren, baina ez zituzten lokotxak jaso, zaborra baizik. Beraz, zaborra bildu eta bakoitza dagokion edukin ontzira bota zuten, zaborra birziklatzeko nahitaezkoa baita hondakinak bereiztuta botatzea. Azkenik, ikasle bakoitzak zaborretara botatzen ditugunetako gauza bat hartu eta hori probetxatuz gauza berri bat asmatu behar izan zuen; zaborra berrerabili behar zuen, alegia.

#### Urte osorako gaia

Kanpaina hau, ordea, ez da arratsaldeko saio batean geldituko. Irakasleek zaborra eta bere erabilerari buruzko txosten bat jaso zuten hurrekin lantzeko. Beraz, unitate didaktiko berri bat dute eskolan hemendik aurrera ikasleei irakasteko.

Bestalde, poster bat jaso zuten haur guztiek saioaren oroigarri moduan.

## ZAKURREN ETA KATUEN TXERTAKETA

### Jaxinto Legarda albaiteroak jarriko die txertoa animaliei

Txertoak jartzeaz gain, parasitoak kendu eta mikrotxipak jarriko dizkiete animaliei. Martxoaren 10etik 15era bitartean, baserrian bizi direnek albaiteroaren bisita izango dute lan horiek guztiak egiteko. Kanean bizi direnek, ordea, udaletxe azpira eraman beharko dituzte beren katu eta zakurrak martxoaren 17an eta 18an. Mar-

txoaren 17an eramanez gero, goizeko hamarretatik eguerdiko ordubietara behar du izan; biharamunean eramanez gero aldiz, arratsaldeko sei t'erdietatik aurrera.

#### Oharra

Animaliaren Osasun Kartila eta jabearen Nortasun Agiria aurkeztu behar dira.

**EMBUTIDOS ORMAKI URDAITEGIA**

**TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

**HERCULES**

**Aseguruak ARGENTARIA**

*Anaia Kortajarena*

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 39 37 34

**ZIZURKIL**

**UNAI**

**oinetakoak**

ume eta gazteentzako oinetakoak

Kale Nagusia 12 - BILLABONA  
☎ 69 12 61

# BADATOR KORRIKA!

**Herritar askok hartu dute parte Korrikaren inguruko batzarretan**

*Martxoaren 15ean helduko da "Euskal Herria korrika" lelopean 10. Korrika Billabonara, eta egun horretan etortzeaz gain, martxoaren 17an berriro izango dugu euskara eta AEK-ren aldeko korrika saio herrikoi honen bisita. Goizean goiz helduko denez, Korrika txikia egingo dute gaur bertan herrian gaztetxoenek.*

**Korrika Aiztondo bailaran barrena igaroko den ordutegia**

*Martxoak 15 larunbata*

Asteasu	goizeko 06:00ak aldera
Alkiza	goizeko 06:30ak aldera
(Alkizatik Anoetara eta Irurara joan ondoren:)	
Billabona	goizeko 08:00ak aldera
Zizurkil	goizeko 08:15ak aldera
Aduna	goizeko 08:30etatik aurrera

*Martxoak 17 astelehena*

Aduna	goizeko 08:00ak aldera
Zizurkil	goizeko 08:15ak aldera
Billabona	goizeko 08:30ak aldera

**H**amargarren Korrikaren 57 kilometro igaroko dira Tolosaldeetik. Aurten, gainera, Aiztondo bailarako Asteasu eta Alkiza herrietan barrena pasako da; lehenengo aldia izango da. Herriak txikiak eta kilometroak, berriz, asko direnez, kilometro guztiak ez dira herri horietan salduko. Hala ere, herri handiek erosi gabe gelditzen diren kilometro horiek erosiko dituztela uste dute AEK-ko ordezkariak.

**Ekimenak**

Korrika, ordea, ez da korrika saio bat egitea soilik. Dirua biltzeko pegatinak jarri, boletoa ateratu, jantziak salgai jarri eta gauza gehiago egin dute AEK-ko kideek eta herritar gehiagok dirua biltzeko xedearekin. Izan ere, eta Korrika jendea euskaraz hitz egitea kontzientziazteko egiten bada ere, AEK-ko euskaltegiek funtzionatzeko behar duten dirua biltzeko ere egiten da. Beraz Korrikan parte hartzeo era ezberdinak daude; korri eginaz edota dirua aportatuz.

**Herritarren parte hartzea**

Herritarrek gogor ari dira "entrenatzen" Korrikan parte hartzeko. Izan ere, Korrika antolatzekeo batzar ugari egin dituzte herrian, eta eskolako, euskaltegiko eta herriko talde ezberdinetako jende askoren artean banatu dituzte Korrika antolatzekeo egin beharreko lanak. Orain, bihar goizean goiz jaikitzea besterik ez da falta Euskal Herri osoa arineketan jarriko duen ekintza herrikoi eta euskaltzale horretan parte hartzeko.

HILERO HOGEI  
GUTXIAGO  
ERREZ GERO ...



**Hemen Euskal Herria**

**10**

**korrika!**

1997ko martxoaren 14tik 23ra  
ARANTZAZU-BILBO


**lagunak**

# "BETERRIKO LIBURUA 1996"

**Zizurkilen emango da ezagutzera azken erabakia**

*Larramendi Bazkunak Beterri-Aiztondoko eskualdean antolatu duen ohorezko literatur aipamen honen azken erabakia hartu du dagoeneko epaimahaiak, eta datorren asteazkenean, martxoaren 19-an emango du ezagutzera Zizurkil*

*goiko Iriarte etxean antolaturiko ekitaldi batean. Ekitaldiari arratsaldeko zazpi t'erdietan emango zaio hasiera, eta bertan izango da bere lehenengo edizioan aipamen hori jasoko duen obraren egilea.*



Larramendi Bazkunak Aiurri aldizkariaren bidez antolatu du lehen edizioa eskualdeko sei herrietan aipamenaren berri emanez eta herritarrek proposamenak egin zituzten txartelak banatuz. Xabier Irisarrik, epaimahaiko idazkariak egin digu lehen edizio honen balorazioa: "lehenengo urtea izanik nahi baino berandua-go hasi ginen aipamena antolatzen eta, horren ondorioz, ez dira asko izan jasotako proposamenak. Gainera, jaso ditugunen artean obra ugari zegoen, aukera zabala eta ez baten aldeko garbia; horregatik, azkenik, epaimahaiak berak izan du azken hitza aipamena jasoko duen obra hautatzean". Alabaina, Xabier Irisarrik adierazi du proposamen gutxi jaso arren epaimahaiak oso balorazio ona egin duela egindako lanak izan dituen emaitzez: "lehenengo saioa izateko eta erantzuna oso epe laburrean eman beharrekoa, oso ontzat jo dute emaitza" adierazi digu. Bitxikerien artean adierazi proposamen gehien egin duen herria Billabona izan dela.

Azkenik adierazi digute, aipamenari dagokion azken erabakia jakitera emateko ekitaldia irekia izango dela.

## IV. TXAPELA EGUNA

**Pantxikaneko Pilar omendu dute aurten**

Urtero bezala, aurten ere Txapela eguna ospatu dute Zizurkilen. Pantxikaneko Pilar izan da omendua, eta herrian aski ezaguna den bizilaguna izateaz gain, emakume delako omendu dute bera. Izan ere, martxoaren 8an ospatu zuten Txapelaren eguna, emakume langilearen nazioarteko egunean, alegia.

*Giro ona*

Urteroko ekintzak egin zituzten, baina afaria eta ondorengo omenaldia izan ziren garrantzitsuenak. Hala ere, herri kirolek, trikitilarien saioek eta mus txapelketak giro ederra sortu zuten herrian.

**ALOTZ  
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

**PATXINE  
JATETXEA**

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL  
SUKALDARITZA ETA ETXETIKO POSTREAK  
Errementari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

**FRANCISCO  
MENDIKUTE  
HARATEGIA**

Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Aduna

# LIZARRA, LANEKO ARROPAK GARBITZEKO TXOKOA

**Adunako Urtaki industrialdean dago enpresa bitxi hau**

*Lizarra enpresan Urretabizkaia ikuztegiaren ardura hartu eta familiak egiten du lan. gustura ari dira orain lan horretan Lehenagotik martxan ari zen beste enpresa batzuentzat.*

**L**izarran lanerako arropa garbitzen dute, eta hemen inguruan lan horretan diharduen beste enpresaren berri ez dute Urretabizkaikatarrek: *"Labandaria asko dago baina gure antzera, hau da, enpresa gisa lan egiten dutenak gutxi batzuk dira. Gure lana beste enpresetako arropa garbitzean datza gehienbat".*

## Lana

Euren bezero diren enpresetara joaten dira Lizarrako langileak laneko buzo eta arropen bila. Horrela, zakuetan ekartzen dituzte arropak eta banan bana, arropetako poltsikoak begiratu eta identifikazio bat ezarri ondoren, garbigailuan sartzen dituzte. Garbigailuan ordubete eduki ondoren lehorgailu handi batean sartzen dituzte. Lehorgailuak arropa orduerdiz lehortzen duenez, bi txandatan lehortzen dituzte arropak, garbigailuak beste arropa batzuk garbitzen dituen bitartean. *"Makinaria eta antolamendu bonekin, inoiz ez gera esku butsik geratzen. Lehortutako arropak eskuz tolestu eta pilatuta utzi ditugunerako beste batzuk lehortu dira, eta beraz, berriro ere lan horretara bueltatzen gara. Lan guztia kate bat da, ordena jarraituz egiten dugu lana. Ez da lan zaila baina bai adi egotekoa".*

## Bezeroak

Bezeroak enpresak izaten dira normalean. Badira enpresak heren langileen arropa garbiketara egiten dutenak. Beste batzuetan, ordea, enpresako langile multzo bat elkartu eta beraiek eskatuta garbitzen dituzte Lizarrakoek beren arropak. Mikel eta Xabier Urretabizkaia anaiek esan digutenez, ez dute nahi adina bezero: *"Ezin gara kexatu ditugun bezeroe-*



*Urretabizkaia anaiek lanean*

*taz, baina jendea oso deskonfiatua da. Jendea beldur da bere arropa beste baten batenarekin nabastu edo beste edozer gauza egingo ote diogun. Behin gure zerbitzua ikusi eta probatu ondoren, ordea, oso gustura gelditzen dira." Horrezaz gain, bi anaien ustez, gizonezkoak beren arroparen garbiketaz ez arduratzeak horrek duen lanaz ez jabetzea dakar: "Normalean emakumeak garbitzen dituzte buzoak, eta gizonak garbitu*

*beharko balitu, seguru gaude bezero kopurua gebitu egingo litzatekeela".*

## Banaketa

Lizarra ikuztegia bera arduratzen da arropa bildu eta berriro bueltan eramateaz. Astelehenean arropa zikina bildu, garbitu, eta beharrezkoa bada josi egiten dute. Arropa ostiralerako bueltatzen dute enpresara, *"bi buzorekin bakarrik nabikoa ongi moldatzen dira langileak."*



**BORDA**  
*Jatetxea*  
**A N D O A I N**

# MARTXOAREN 8A, EMAKUMEAREN EGUNA

*Jada ohitura bilakatu da martxoaren 8a ospatzea. Egutegian egun hori agertzen denean, herri askotako emakumeek afaria egiten dute emakumearen eguna ospatzeko. Baina zenbatek dakigu, benetan, zer*

*ospatzen dugun? Guztiok al dakigu zer gertatu zen egun horretan? Urte batzuk pasa ondoren aldarrikapen eta borroka egun hori ez al da ondo pasatzeko egun bat bilakatu?*

**E**gun, normaltzat hartzen dugu egun hori afari edota antzeko ekintzen bidez ospatzea. Egundorretan emakumeok eguna ondo pasatzen saiatuko gara, baina, hori al da benetan egunaren zentzua? Gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunera iristeko oraindik asko falta zaigu. Lan munduan argi ikus daitezkeen bezala, emakumezkoek soldata baxuagoak irabazten dituzte, edo amatasuna dela eta, oztopo gehiago jartzen dizkio enpresak emakumeari. Zein emakumeei ez zaio gertatu lanpostu baterako elkarrizketan senarririk edo gizonik ba ote duen edota familia osatzeko asmorik ba al duen galderari erantzun beharra izatea?

baldintza txarrak salatzeko, manifestazioa antolatu zuten New Yorken. Manifestazio horretan gertatutako iskanbilien ondorioz, emakume asko hil ziren. 1910. urtean, nazioarteko kongresu sozialistan, 1857ko gertaeren oroimenez martxoaren 8a ospatzea proposatu zuen Clara Zetkinnek eta 1911. urtean ospatu zen lehenengo aldiz egun hori. Lehen urte horretan Alemania, Austria, Danimarka, Suitza eta EEBB-tan ospatu zuten martxoaren 8a. Egundorretan ospatzerakoan berdintasuna, justizia, bakea eta garapena lortzeko urte hauetan guztietan burututako borrokaren ohitura hori eguneratu baino ez dugu egiten.

## *Ospatzeko era asko*

Egundorretan emakume askok ospatzen dute, guztiek oso era ezberdinean. Horrela, batzuek afaria izango duten bitartean, beste batzuk egun pasa edota hitzaldiak egingo dituzte. Ekitaldi horien guztien oinarria, egundorretan emakumearen aldarrikapenen islada izatea da, antolatzaileen esanetan. Andoainen, besteak beste, ekitaldi ugarietan parte hartu ahal izango dugu emakumeok. Andoaingo Ongizate eta Kultura batzordeek zenbait hitzaldi, erakusketa eta antzerki saio antolatu dituzte. Gauzak horrela, emakumearen lan eskubideak eta

*"1911. urtean ospatu zen lehenengo aldiz nazioarteko emakumearen eguna"*

Hori alde batera utzita, zer ospatzen dugu, ordea, martxoaren 8an? Eta noiztik? Galdera horien erantzunak bat baino gehiago badira ere, ofizialtzat ezaguna dena aipatuko dugu jarraian. 1857. urtean chungintzako emakumezko langileek hamabi ordutako laneguna, soldata baxua eta lan



gizonezkoek seme-alaben hezkuntzan eta etxean duten papera aztertzeko hitzaldiak antolatu zituzten. Horrezaz gain, "Emakumea lanean" izenburupeko erakusketa ere ikusgai izan dugu martxoaren 7tik 16ra bitartean. Erakusketa horretan emakumeak lanean izan duen garapena eta aldaketa erakutsi dira.

## Egun-pasa

Andoaingo famili eta gizarte heziketarako egoitza izenez ezagutzen denak egun hori ospatzeko egun-pasa antolatu du. Horrela, martxoaren 12an, emakumez beteriko autobusa atera zen Arantzazurako bidean. Bertan 400 bat emakume bildu ziren, eta Oñatiko unibertsitatera bisita, bazkaria eta dantzaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Hogeita hamar urtez martxan daraman zentru honek beti antolatu izan du ekitaldiren bat egun hori ospatzeko, eta egun-pasa hori bosgarren aldiz antolatzeko dute.

Hori guztiaz gain, egun, arrakastarik gehiena edota harrerarik onena duen ekitaldia afaria edota bazkaria da. Nazioarteko emakumearen eguneko afaria herri askotan egiten da urtero. Horien artean Zizurkil eta Adunako kasuak ditugu. Zizurkilen "Matriarcado vasco: mito y realidad" izenburupeko hitzaldia eman zuen Teresa del Valle antropologoak.

## Lilaton

Bada emakume eguna ospatzeko beste modu bat. Azken zortzi urteotan, emakume askok hartu dute parte Lilaton lasterke-



ta herrikoian. Bost kilometroko lasterketa horren arrazoia, kirol arloan emakume eta gizonezkoen ezberdintasuna salatzea, eta emakumeak kirola egin dezaketela azaltzea da. "Normalean, emakumeok leku itxietan egin ohi dugu kirola, eta lasterketa herrikoi horren bidez, emakumeak beren lotsak alde batera utzi eta kirola egitea da gure helburua. Gustura gaude lortu dugunarekin, izan ere, urtetik urtera emakume gehiago burbiltzen da lasterketara, eta horietako asko, beste lasterketetara aurkezten dira ondoren", azaldu digute Lilatoneko arduradunek. Lilatonen hurrengo asmoa ezingabetuek ere parte hartzeko aukera izatea da.

Aurtengo lasterketa honetan Andoaingo, Billabonako eta

Astcasuko emakume batzuk hartu dute parte, besteak beste.

Era batera zein bestera ospatu, konturatu gaitezen ospakizun hutsa baino zerbait gehiago dela egun hori. Emakumeak eskubideei dagokienez gizonezkoen parean egon gaitezkeela errebundikatzea garrantzitsua da, izan ere, XXI. mendearen atarian, oraindik oinarrizko eskaera eta baldintza asko ez baitira betetzen. Sexua ez dadila norbait diskriminatzeko aitzakia izan.

**"Oraindik oinarrizko eskubide asko ez dira betetzen"**

**075439**

**Etxebizitzen salerosketa**

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94  
BILLABONA

**Ormendik  
Kirolak**

**AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUJETA**



**JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN**

**Jose Ramon**  
— TABERNA —

**PINTXO EDERRAK!!**

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

# KRISTINA WOZNIAK: "FAMILIA HANDI BATEKO KIDE SENTITZEN NAIZ HEMEN"



38 urterekin etorri zen Euskal Herrira

**Kristina Wozniak poloniarra duela hamabi urte etorri zen Euskal Herrira. Euskadiko Orkestra sinfonikoan biolina jotzea du ofizio, eta naturaz eta animaliez gozatzea berriz, afizio. Larraulgo bere etxean hartu gaitu jada euskalduna sentitzen den Kristinak bere lau katuek lagundurik, eta herrian urtea baino gutxiago daraman arren, familia handi bateko kide sentitzen dela esan digu. Hona hemen elkarrizketa luze eta xarmantaren laburpena.**

**Aturri: Nolatan etorri zinen Poloniatik Euskal Herrira?**

**Kristina Wozniak:** Nazkatuta nengoen Poloniako egoeraz; diru gutxi irabazten genuen, eskulana oso merkea baitzen, janaria erosteko ilara luzeak egiten ziren, Gobernu aldaketa eman zen...; oso egoera larria bizi izan genuen 80eko hamarkadan. Beraz, nire biolina hartu eta artisten agentzia batera jo nuen bandik kanpora irteteko aukera ematen baitzuten. Espainiara joatea aukeratu nuen, eta ondorioz, Donostiara heldu nintzen ni neu, nire maleta, biolina eta txanpon bakan batzuekin. Orduan ez nuen Euskal Herriaren berririk, baina gerora konturatu naiz hau ez dela Espainta.

Donostian Euskadiko Orkestran lan egiteko oposaketak egin nituen, eta nire zorionerako, hartu egin ninduten. Hil ala biziko kontua izan ziren oposaketak, orkestran hartu ez

banindute Poloniarra bueltatu beharko bainukeen.

**Ai.: Zer irudituz zitzaitzun Euskal Herria? Jendearekin komunikatzeko bizkuntzarik ba al zenekien?**

**K.W.:** Lehenengo egunean maite-mindu nintzen Donostiaz. Txoke handia izan zen Poloniatik etorri eta jendea pasiatzen eta tabernetako mabaletan eserita ikustea; jendea zoriontsu eta lasai ikustea, alegia. Uste nuena baino hobea da hau. Bestalde, ez nekien gaztekeraz hitz bat bera ere esaten. Nire kabuz, bizitegiarekin, telebistarekin eta jendearen laguntzaz ikasi dut gaztekeraz hitz egiten, nahiz eta asko kostatu zitzaidan. Orain euskara ikasten ari naiz, "poliki-poliki", nire adinarekin zailagoa baita. Hala ere, izpirituz gaztea naiz.

**Ai.: Nola iritsi zara Larraule-ra? Zer moduz sentitzen zara hemen?**

**K.W.:** Duela urtebete arte errentan bizi izan naiz. Lehenengo urteetan Errenderian bizi izan nintzen Poloniako familia batekin. Ondoren, Donostian, urte askotan egon nintzen errentan bizitzen, baita Lasarten ere. Azken urteetan Billa-bonan bizi nintzen, baina azkenean, etxe bat erosi behar nuela erabaki nuen. Aurrez ezagutzen nuen Aiztondo bailara, denbora librean nuenean kotxea hartu (hemen atera nuen karneta) eta horrelako bailara askotara egiten bainituen txangoak. Larraul, ordea, ez nuen ezagutzen, baina saltzaileak etxea Aiztondo bailarako herri txiki eta lasai batean zegoela esan zuenean, bi aldiz pentsatu ere egin gabe eman nuen izena. Izan ere, ilurratu egin ninduen bemengo edertasunak, bai ze garbiak eta lasaitasunak.

Orain, Larraulen, oso gustura bizi naiz. Familia handi bateko kide sentitzen naiz, lagun asko ditut hemen.





Oso pertsona umoretsua da Kristina

## “Liluratu egin ninduen hemengo edertasunak”

**Ai.:** Bakarrik etorri zinen arren, orain ez zara bakarrik bizi, ezta?

**K.W.:** Nire semea Robert bizi da nirekin. Oporretara etorri zen lehenik, eta azkenean, hau gustatu eta hemen gelditu zen bizitzen. Errenderiako Don Bosco eskolan hasi zen ikasketak egiten, Polonian egin zituen ikasketak hemen balio abal izateko tramite asko egin ondoren. Hasieran ez zuen erdaraz tutik ere ulertzen. Irakasleak animatuta lagunak egin zituen Robertek, eta eurekin egonaz eta kalean ibiliz, hiru bilabete ondoren gazteleraz hitz egiten zuen. Hasieran lotsa eta beldur piska bat ematen zion hemen lagunak egitea, berataz barre egingo zutela uste zuen. Baina nik esan nion hemengo jendeak asko lagunduko ziola, hau ez zela Polonia. Izan ere, oso jende lagunak eta jatorra da hemengoa.

Orain, 28 urte dituen nire semea Tolosan ari da papergintzako ikasketak egiten, eta hemengo neska batekin ibiltzen da. Arrasaten ere aritu da ikasten; gogor saiatu da nire semea ikasketetan.

**Ai.:** Musikaria zara ofizioz. Zer nolako lana burutzen duzu Euskadiko Orkestra Sinfonikoan?

**K.W.:** Egunero behin edo bi aldiz entsaiatzen dugu; lau-sei ordu entsaiatzen dugu egunero. Astean bitan berriz, normalean, kontzertuak ematen ditugu. Kontzertu gehienak Euskal Herrian ematen ditugu, baina kanpora ere egin ditugu girak. Asko atsegin dut nire ofizioa, eta orkestra osoak batera entsaiatzeaz gain, musikari bakoitzak bere kabuz ere entsaiatu behar du; forman mantendu behar dugu musikariok gero ongi jokatzeko.

**Ai.:** Nolako musika egiten duzue?

**K.W.:** Musika klasikoa jotzen dugu gehien. Hala ere, Gabonetako kontzertuak eta hemengo kantuek ere jotzen ditugu. Asko atsegin ditut zuen kultura, erritmoa eta kantuek. Oso erritmo berezia dute zuen kantuek. Guridiren hamar melo-

## “Oso jende lagunkoia eta jatorra da hemengoa”

## HILERO BI GUTXIAGO HARTUTA ...



diak nire melodiarik maiteenak dira, hitz egiten dizun musika da, bibotzeraino atlegatzen dena. Bestalde, haurrentzako kontzertu didaktikoak eskaintzen ditugu, haurrek musika eta instrumentuen berri edukitzeko.

## “Guridiren melodiak munduko kanturik politenak dira”

**Ai.:** Bueltatuko al zara Poloniarara?

**K.W.:** Ez, duela denbora asko erabaki nuen hemen bizitzen gelditzea. Larraulen oso ongi hartu naute, oso lagunak dira, baina euskaraz hitz egitea falta zait benetan jendearekin ongi komunikatzeko. Asko laguntzen didate gainera euskaraz ikasterako orduan; nire kontura eta lagunekin ari naiz ikasten euskara.

Nire buruen bizileku aldaketa bemendik hilerrira izango da. Hemen bota ditut nik nire sus-traiak.

# AIURRIREN ETAPA BERRIA

## Larramendi Bazkuneko Jon Unanuekin solasaldia



Jon Unanue

**Aiurri:** Aurren biru urte bete-ko dituzte Aiurri aldizkariak eta Larramendi Bazkunak. Orduan ezarritako helburuak eta asmoak bete al dira?

**Jon Unanue:** Helburuak erdizka bete direla esango nuke eta asmoen dagokienez apur bat bere benetako neurritara ekarri behar izan ditugula. Larramendi Bazkuna sortu genuenean Aiurri aldizkaria izan genuen herritarrei aurkezturiko lehen proiektua, lehen ekinbidea. Aiurri aldizkariak aurrera egin du, baina orduan uste baino lan eta arazo gehiago izan dugu. Herrietako, eskualdeko informazioari dagokion helburua, eta, jakina, baita euskarari dagokiona ere betetzen ari garela esango nuke. SIADECO enpresak gure aldizkariak 400 herritarren artean egin duen inkestak garbi azaltzen du hori: Aiurri aldizkariari esker, esate baterako, asko dira euskaraz irakurtzen hasi diren herritarrak. Bestetik, Aiurri aldizkaria gastu handia da, eta horri aurre egiteko eskualdeko udalen laguntza eskatu genuen. Udalen erantzuna oso ona izan da, besterik ezin da esan, baina beraiek ematen diguten laguntza ez da

nabikoa aldizkariako gastu guztiei aurre egiteko. Gure itzaropena publizitatea zen, eskualde osoan saldu behar genuen publizitatea alegia, baina horrek pott egin digu, uste baino askoz gutxiago saltzen baita.

Gero Larramendi Bazkuna dago, eta Larramendi Bazkunean aurrera eramane nahi ditugun beste ekintza guztiak. Hor, nagusiki, bi arazo dauzkagu: batetik nahi baino bazkide gutxiago dugula, nonbait ez diegula behar bezala azaldu herritarrei gure elkartearen izaera edo beharra. Bestetik, bazkide gazteen falta nabarmena dugu, proiektu eta ekinbide berrietara joko duten bazkide gazteak falta zaizkigu.

**Aiurri:** Publizitate gutxi saltzen dela aipatu duzu...

**J.U.:** Bai, hala da, eta hor dago gure diru arazoaren koxka. Guk udalei laguntza eskatu genuenean argi eta garbi agindu genien Larramendi Bazkunaren Aiurri aldizkaria ez zela zama handia izango beraientzat, zamarik handiena, baina zuzen ere, Larramendi Bazkunak hartuko zuela, 10 pezetatik 6 publizitatea saltzearekin jarritz. Orduan aldizkaria astero-astero argitaratzea agindu genien. Udalei ziurtatu egin nahi genien gure asmotan bere laguntza ez zela diruzorro agortezina izango, berri bakoitzari euskararen eta gure kulturaren mesedetan jartzea zegoikona baizik. Gero ikusi abal izan dugu ez zela inondik inora posible publizitatea salduz bainubeste dituz eskuratzea. Horretan, neurri batean, porrot egin dugu.

Larramendi Bazkunaren egitekoa ez da buts-butsik Aiurri aldizkaria argitaratzea, beste ekintza batzuk ere egiten ditu eta proiektu askotxo dugu esku artean. Gainera, gure bazkideek ematen diguten diru-iturri osoa aldizkariako isurita ere ez genuke lortuko gastuak berdintzeko behar dugun dirusarrerara adina. Horregatik erabaki

dugu ekainetik aurrera aldizkaria kobratzea, urteko 2.000 pezeta ordainaraztea alegia, ezinbestez behar dugulako irakurleen laguntza hori.

**Aiurri:** Beraz, garai berria dator gure aldizkariarentzat...

**J.U.:** Bai, hala beharko du izan. Heldu zaio bere burua sendotzeko garaia, iaz zabuka ibili ondoren. Harpideei, irakurleei kobratzea erronka handia da guretzat, ez dezala gero inork pentsa erabaki erraza izan denik, ez baitakigu herritarrek nola erantzun diguten biru urtez aldizkaria etxean dobainik jaso ondoren. Erantzunaren arabera ikusiko dugu aurrera jotzerik badugun ala ez. Irakurleen, harpideen esku gaude orain.

Gainera, bizitza berezkoexagoa eman nahi diogu aldizkariari, bertan lanean dibarduten eta lankide direnen esku utziz erabat aldizkariaren martxa, eta bere eginez ardura; Larramendi Bazkuna lan egiteko modu berri horri jarraituko zaio. Beraz, aldaketak somatuko dira, gehien bat aldizkariaren edukian, zabaldu eta berritu egin bailiteke aurren ekainetik aurrera. Larramendi Bazkunaren iritziz komunikabideen esparru horretan barrena aurrera jo daiteke, baina lan asko dago oraindik egiteko.

**Aiurri:** Zer esan nahi duzu, proiektu berririk baduzuela esku artean?

**J.U.:** Proiektuak beti daude hor berri-berritan, inork heltzen ez dien bitartean. Komunikabideen alorra osatzeko maiz hitz egiten dugu telebistaz edota irratiak, baina gaur oso garbi daukagu aldizkariaren beraren baitandik heldu behar zailela bi proiektu berri horiei, eta hori ez dela bideragarria izango aldizkaria bera sendotu eta zuzpertzten ez bada. Horrek ez du esan nahi aldizkari-ko langile eta lankideak bakarrik

utzi behar direnik erronka horietan, baina hortik abiatzea pausorik zentzuzkoena iruditzen zaigu, ahal dela etorkizunean komuni-kabide guztiak sorta bakar baten barruan eskaintzearren herritarri. Gure helburuak bete-betean barrapatuko lituzke horrek.

**Aiurri:** Irakurleek edukian aldaketak somatuko dituztela esan duzu...

**J.U.:** Bai hori lantzen ari da une bonetan erredakzioko taldea, lehenbailehen maketa berri eta ekainetik aurrera, harpidetza kanpaina ondo samar joanez gero, orrialdeak gebitu nahi baitira. Atal berriak izango dira eta herri bakoitzari Beterrri-Aiztondoko eskualdearen barruan berez duen pisu eta garrantziaren arabera lekua egingo zaio. Herrietan kolaboratzaile berriak inguratu nahi ditugu, herriko berri emango dutenak, garai bateko pasadizuak azalduko dituztenak, hitz batean esateko, herriko taupada sentiaraziko diotenak herritarri. Gainera, orain aldizkaria argitara ematen duen erredakzio taldea oso gaztea da, eta gaztea den heinean herrian herriko kolaboratzaileen laguntza asko estimatzen dute, sei herrien berri zebatza izateak konplikazio handiak baitakartz.

**Aiurri:** Nola antolatu duzue aldizkaria ordaintzeko kanpaina?

**J.U.:** Orain aldizkaria etxean jasotzen duen herritarri, harpidetza, argi eta garbi azaldu nahi diogu ekainetik aurrera jaso nahi baldin badu ordaindu egin behar duela, urte osokoa 2.000 pezeta, alegia, aldizkari bakoitza 100 pezeta baino gutxiago. Hori azaltzarekin batera garbi esan behar diogu udalek ematen diguten laguntza ez dela nahikoa, baina ezin diegula ere gebiango eskatu, ez bailitzaiteke bidezkoa, eta iaz zorra egin genuela, aurten zor hori askoz handiagoa izango dela irakurleok ordaintzen ez badugu, Aiurri aldiz-



karia Larramendi Bazkunak argitaratzen duela, eta Bazkunak une bonetan eskualde osoan 113 bazkide baino ez dauzka. Hori guztia azaldu nahi diegu, eta zuzenean zulora goazela aldizkaria kobratzen basten ez bagara. Nik uste, bestetik, ez dela asko eskatzea herritarri abalegin hori, benetan aldizkaria estimatzen duenak ordaintzeko prest egon behar duela, ez bada egoera ekonomiko zailean dagoelako edo gaztea izan eta irakurle bakarra delako bere etxean. Hori guztia azaltzeko kanpaina hasi dugu; aldizkarian bertan, elkarrizketa hau kasu, eta baita beste komunikabideetan ere.

Orain aldizkaria etxean jasotzen duten herritarrek, uztailetik aurrera jasotzen jarraitu nahi baldin badute, aldizkarian bertan datorren harpidetza txartela bete behar du eta guri iritsiarazi. Horretarako nahikoa izango da txartela sobre batean sartzea eta herri bakoitzean izendaturiko erakunde edo dendaren batera eramatea. Hori egiten ez duenari azken unean telefonoz egingo diogu galdera, jarraitu nahi duen ala ez. Garbi dagoena da uztailetik aurrera orain izena ematen duten harpide-

ek baino ez dutela jasoko aldizkaria etxean.

**Aiurri:** Zer balorazio egiten duzue Beterrri-Aiztondoko kultur ibarduera eta egoerari buruz?

**J.U.:** Ziurrenik ez da nahi genukeena, baina nahi genukeena ezin dugu utopiatik planteatu ere; gero eta garrantzi handiagoa du galdera horiei erantzuteak aurrean dugun errealitateaz jabeturik eta ondo ezagaturik. Errealitate hori izugarri aldatu da azken hogeita hamar urtetan eta oraindik asko aldatuko da. Beraz, lehenik eta behin eskualdean kultur ibarduera zertara mugatu nahi dugun hausnartu beharrean gaude. Modu askotan inplika liteke jendea hausnarraldi horretan, eta guk gurea ere osatu nahi genuke. Bazkide gutxi dugula esan dizut lehen, eta hori guretzat nahikoa kezagarria da, jendeak beste gauza batzuetarako duen ekimen eta partaidetza maila ez duelako hain funtsezkoa den kulturgintzarako, are gebiango bizkuntza beraren etorkizuna jokotan dagoenean. Aurten, behinik behin, Kultur Bazkuneran bazkide berriak inguratzeko kanpainak egingo ditugu herriz herri, bereziki Billabona eta Zizurkilen.


**ALFARO**  
**JATE TXEA**  
 EGUNEROKO MENUA  
 Etxeberrieta auzunea  
 ☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

*Aiurri*  
**Beltz**  
 Taberna  
 Kaleberria, 9 ANDOAIN TELE. 59 35 49

**BENITO**  
 HARATEGIA  
 URDAITEGIA  
 Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
 Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50  
**BILLABONA**

Aduna

# ADUNA HERRIA MENDE HASIERAN



**I**txura hau zuen Adunako herriak mendeko honen hasieran. Argazkia Sorribillatik Adunara doan bidetik ateratakoa da, eta egun errepidearen alboan dauden pabiloiak eta lantegiak ez dira ageri argazkian. Argazkia Azelaingo señoiritua deitzen zioten jauntxo ando-

aindariak atera zuen ziurrenik, baina ezin izan dugu ez hori ez datarik ere ziur jakin. Hala ere, argazki hau tamainu handiagoan ikusi nahi izanez gero, Adunako herriko tabernan dago ikusgai beste zenbait argazkirekin batera. Altxor historiko bat ez bairik gabe.

## Amaia Vazquez.

### Sexologa eta psikologa.



*-Zizurkilen emakumeei buruzko ikastaroa ematen ari zara. Zure lehen ikastaroa al da?*

*Ez. Herri ezberdinetan ematen ditut ikastaroak eta hitzaldiak. Aztergaia ere ez da beti berdina izaten, baina horietan guztietan bada zerbait amankomuna:*

*edozein hitzaldi edota ikastaro izan arren, bertara joaten den jendea emakumezkoa izaten da.*

*-Zein ikastaro mota da?*

*Zortzi astetako ikastaroa izango da, eta emakumetasuna izango da gai nagusia. Hau da, amatasuna, autoestima, gizarte barrena, komunikazioa, osasuna eta beste hainbat puntu aztertuko ditugu. Hala ere, ikastaro praktikoa izango da oso. Konfidantza maila bat lortzen dugunean pertsona bakoitzaren esperientzia ikastaroaren abiapuntu izan daiteke, adibidez.*

*-Zein barrera izan du ikastaroak?*

*Hasi berriak gara baina barrera oso ona izan du. Hamabost bat emakumez osatutako taldea dut Zizurkilen. Talde txikia izatea garrantzitsua da, talde handitan metodologia praktikoa jarraitzea oso zaila egiten baita. Gainera, emakumeek horrelako ikastaroetan duten parte hartzea oso ona izaten da.*

*-Zergatik ez dute gizonezkoek hitzaldietan parte hartzen?*

*Gaiak interesgarriak izaten dira, beraz, ez dut uste aztertzen diren gaiak interesik ez dutenik. Nire ustez gizonezkoak lotsatu egiten dira horrelako ikastaroetan parte hartzean, eta askoz ere gehiago parte hartzen duten gebienak emakumezkoak direla jakitean. Heziketa arazo bat dela esan daiteke.*

*-Nolakoa da egungo emakumearen egoera?*

*Eguno emakumea aldaketa garai batean bizi da. Gauza asko lortu ditugun arren, egungo egoera ekonomikoa eta soziala dela eta lortutako gauza guztiak galtzeko arriskua dugu. Langabezia eta pobrezia emakumearen izena darama. Egoera txarrean, beti, emakumea da baztertzen duten lehena.*

## PERTSONAIA EZKUTUA




Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da oso, eta beraz, erreza izango duzue nor den asmatzea.

Saria bikaina da oraingoan ere: **Adu-nako Urritza sagardotegiak bi pertsonentzako afaria eskaini digu oparizat.**

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

SAGARDOTEGIA  
JATETXEA

# URRITZA



**ANTZERKIA****ANDOAIN**

*Martxoak 15:* "Ni contigo ni sin ti" antzezlan, La Salle antzokian, arratsaldeko 20:00etan.

**ERAKUSKETA****ANDOAIN**

*Martxoaren 21etik 30era:* Beñat Arregiren argazki erakusketa, Uri-gain kultura etxean.

**AITZALDIA****ANDOAIN**

*Martxoak 14:* EAJ-PN Vek antolatuta, Jose Elorrietaren hitzaldia. Aztergaia: ELA-LAB bide berrien bila. Uri-gain Kultura etxean, arratsaldeko 20:00etan

**ANDOAINDAR MUSIKARIAK**

*Martxoak 21:* Maite Oartzunen piano emanaldia, Olagainen, arratsaldeko 20:00etan.

**EUSKAL MUSIKA****ANDOAIN**

*Martxoak 22:* Ganbara taldearen musika emanaldia, La Salle antzokian, arratsaldeko 20:00etan.

**BESTE****ZIZURKIL**

*Martxoak 21:* Santi Anteroren magia emanaldia. Abeletxe aterpea, Zizurkil goian.

**ANDOAIN-BILLABONA-ZIZURKIL**

*Martxoak 14:* Korrika txikia, bertan ikastetxetako haurrek hartuko dute parte.

**IBIALDIAK****ANDOAIN**

*Martxoak 16:* Andoaingo Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta ibilaldi neurtua.

**BILLABONA**

*Martxoak 16:* Aizkardi mendizale elkarteak antolatuta Gorbeira ibilaldia.

**ZINE PROGRAMAZIOA****BILLABONA**

The Wonders  
El perro del Hortelano  
Un día inolvidable  
Space Jam

*Haur zine emanaldiak*  
Gezi urdina (euskaraz)  
Matilda

**MERKATU TXIKIA****ANDOAIN**

*Pisua salgai:* Aiztondo kalean, 3 logela, sukalde ederra, komuna, trastero txikia etxe barruan eta trastero ederra etxetik kanpo. Dena berrituta dago orain urtebete. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa 12.750.000 pzta. Tfno: 590158. (Bazkalgarai edo afalgarai deitu).

*Eskiak salgai:* 1'40m. eta 1'45m. koak 8-10 urte bitarteko haurrentzat. Ikasteko paregabeak. 4.500 pzta. pare bakoitzak. Deitu 907-591371 telefonora.

*Andregai soinekoa salgai:* Uda-berrirako aproposa, mahuka motza (manga). Tfno: 693913.


*Altzariak salgai:* Egongelako altzariak, estilo modernokoak salgai. 3'20 m.-ko luzera modulotan. Tfno: 693913.

**ZIZURKIL**

*Garajea salgai:* Bi solairuko garajea, ofizinetarako aproposa. (Ura eta argia barne). Tfno: 691772.

**RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA**

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkuncan (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.

**KOMIKIA**



# Talleres KARRIKA, C.B



Ubilluts auzunea. 56.Pol. 10. zenb. ☎ 30 02 14 - 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)



- AUTO KONPONKETA
- BERRI NAHIZ  
BIGARREN ESKUKO  
AUTO SALMENA

**AZKEN OPEL TIGRA  
BERRIARENTZAKO  
OSAGARRIAK**

# KONFIDANTZA.



Egunetik egunera hobetzen ari gara




**KIDEGASEKO BEZEROEN  
ARRETARAKO ZERBITZUA**

**900 121 775**

Ama Kandida et. DENAC 115

**GASA INSTALATZEAZ  
GAIN AHOLKU ETA  
GOMENDIOAK ERE  
EMATEN DIZKIZUGU**



**5**


APARAGAILURA DOAN GAS HODIAREN EGOERA ZAINDU EZAZU, BAITA BI IZKINETAN DAUDEN UZTARGAILUENA ERE. ALDATU EZAZU HOMOLOGATU GABE EDO TA ZAHARKITURIK BALDIN BADAGO.



**idegas, s.l.**  
GASA ETA BEROGINTZA

**ZURE GAS AHOLKULARIAK**

# EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO...



## BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA.

Eman ezazu izena AIURRI-n, eta hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. Hilero 200 pta. baino ez du balio, kaina batek, bi kafek edo zigarro-pakete batek adina.

### H A R P I D E T Z A T X A R T E L A

**URTE OSOKO HARPIDETZA- SARIA 2.000 Pta.**

Izen- deiturak -----

Kontu Korrontearen zenbakia:

Helbidea -----

Kodea ----- Herria -----

Entitatea    Sukurtsala    K.D.    Kontu zenbakia

Lanbidea ----- Jaiotze data -----

Tokia, data

Etxeko € ----- Laneko € -----

eta Izenpea:

**Nora eraman txartel hau: Andoainen, Billabonan eta Asteasun:** Gipuzkoa- Donostia Kutxara edo Euskadiko Kutxara. **Gainera, Andoainen:** Aiurrira bertara edo Delgado, Ernaitza, Ikas- Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. **Billabonan,** Kultur etxe edo euskaltegieta eta Basajaun liburudendara. **Zizurkilen,** Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. **Asteasun,** Kultur etxera. **Adunan** ostatura. **Larraulen,** herri- ostatura.